



## PRENTSA-OHARRA

Finantza erakundeak eta Gasteizko merkatari eta ostalarien elkargoak 'normaltasun egoera berriari' lotutako **hitzarmen berria** sinatu dute

# **Gasteiz On eta Kutxabank elkarlanean arituko dira pandemia garaian urruneko eta aurrez-aurreko salmentak bultzatzeko**

- **Gasteiz On elkarteak sustatzen dituen sustapen-jarduerei laguntza emango die Bankuak, eta finantza-irtenbide katalogo zabala jarriko du bere eskura**

**2021eko martxoaren 1ean.** Diego Martínez de San Vicentek, Gasteiz On-eko presidentek eta José Luis Bastarricak, Kutxabanken xehakako sareko Arabako zuzendariak lankidetzat hitzarmena sinatu dute. Honen arabera, finantza-erakundea eta Gasteizko merkatari eta ostalarien elkargoa elkarlanean arituko dira tokian tokiko saltokien laguntzan, pandemiak sortutako egoera zaila gainditzeko.

Akordioaren bitartez, hainbat tresna baliatuko dira aurrez-aurreko eta urruneko salmentak sustatzeko, bai eta Gasteiz On-ek antolatutako jarduerak babesteko ere.

Azken helburu honekin, Kutxabankek Gasteiz On integratzen duten saltokien eskuetan jarriko du Komertzio Kreditua osatzen duten finantza-produktuen eskaintza zabala. Kutxabank Kreditu, Banku Taldearen kontsumorako maileguren atalak **Komertzio Kredituaren** bitartez finantzatzeko aukera eskaintzan dio Gasteiz On elkarteko saltokien azken bezeroari. Kreditu mota horren ezaugarri nagusia da tramiterik eta paperik egitea ez duela eskatzen eta saltokian bertan burutzen dela.

Gasteiz On elkartearen kide diren negozioen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin, Kutxabankek **negozio hipoteka mailegua** jarriko du horien eskura, negozioen kokaleku diren higiezinak erosteko, bai eta **negozio mailegua** ere, zirkulatzaile beharizaneiei erantzuteko edo ekipamendu profesionalaren erosketak finantzatzeko, altzarietatik hasita makineriaraino, garraio elementuekin batera.



Halaber, Gasteiz On elkarteari lotutako negozioek beren eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak ere izango dituzte, hala nola, **Negozio Kontua**, saltoki komertzialetara bereziki bideratutako **arrisku-anitzeko aseguru**a, edo taldeko kide diren saltoki eta negozioentzako **renting** eskaintza lehiakorra.

Negozioen jasangarritasuna eta digitalizazioa dira alorrak dituen bi erronka nagusiak, 'normaltasun berriko' erosteko-ohiturei erantzun egokia eman ahal izateko. Pandemiak nabarmen hazi du urruneko erosketen kopurua, azken urteetan nabaria zen joera berretsiz. Akordio berri honek salmenta berriak sortzeko eta bezeroekin komunikatzeko tresnak jarriko ditu, tamaina eta fakturazio-bolumen desberdinetako saltokientzat sortutako tresna zehatzekin, bai eta ordainketa-digitaletarako sistema berriekin ere.

Hauen artean deigarria da 'Kutxabank Bizum Negozioak'. Sistema berri hori Bizum ordainketa-plataformaren teknologian oinarritzen da, eta bereziki diseinatu da beren negozioaren ezaugarriak direla-eta txartelen bitartez ordaintzeko terminalik ez duten, edo Bizum bitartez urrutiko kobrantzak egin nahi dituzten saltoki eta profesional autonomoentzat. 'Kutxabank Bizum Negozioak' ordainbideak hileroko eragiketa kopuru mugagabea egiteko aukera eskaintzen die saltoki eta profesionali, erosketa bakoitzeko 10.000 euro gehienez, eta aurrez-aurreko erosketetan edo urruneko erosketetan erabil daiteke.

Finantza-abantailen sorta zabalarekin batera, Gasteiz On-ek antolatzen dituen sustapen eta animazio ekimenei laguntza emango die, bai alorra dinamizatzeko, nola bere egitura eta estrategiak egungo beharretara egokitzeko, kontsumitzaileen eskari berriak tarteko.

Gasteiz On hiriko merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako elkargo nagusia da. Bere helburua alorra babestu eta profesionalizatzea da, bai eta lehiakortasuna hobetu eta profesionalen interesak babestea ere. Gainera, Gasteiz On tresna eraginkorra eta independentea izan da egungo alorra eraldatzeko, hiriko gune-komertzial desberdinak biziberritu eta hiriko-bilbadura hobetzen laguntzeko prozesuan.